

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1081/2006 (EE)
ERREGELAMENDUA, 2006ko uztailaren 5ekoa, Europako Gizarte Funtzari buruzkoa, eta
1784/1999 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Reglamento (CE) N° 1081/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 5 de julio de 2006, relativo al Fondo Social Europeo y por el que se deroga el Reglamento (CE) N° 1784/1999*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 210/12 de 31/07/2006*)

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1081/2006 (EE) ERREGELAMENDUA,

2006ko uztailaren 5koa,

Europako Gizarte Funtzari buruzkoa, eta 1784/1999 (EE) zenbakiko Erregelamendua indargabetzen duena

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatua, haren 148. artikulua bereziki, aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽³⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Kontseiluaren 1083/2006 (EE) Erregelamendua, 2006ko uztailaren 11koak, Eskualdeen Garapenerako Europako Funtzari, Europako Gizarte Funtzari eta Kohesio Funtzari ⁽⁴⁾ dagozkien xedapenak ezartzen ditu, egitura-funtzen eta Kohesio Funtzaren esku-hartzeentzako testuingurua finkatzen du eta, bereziki, helburuak, printzipioak eta arauak ezartzen ditu lankidetzari, programazioari, ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez. Beraz, egokia da Europako Gizarte Funtzaren (aurrerantzean, 'EGFa') zeregina definitzea, Tratatuaren 146. artikuluan aurreikusitako lanei dagokienez eta estatu kideen eta Europar Batasunaren enpleguaren aldeko estrategia koordinatua garatzera bideratutako lanaren testuinguruan, Tratatuaren 125. artikuluaekin bat.

(2) EGFak finantzatu ditzakeen esku-hartzeen gaineko xedapen zehatzak ezarri behar dira, 1083/2006 (EE) Erregelamenduan finkatutako helburuen arabera.

(3) EGFak ekonomia- eta gizarte-kohesioa sendotu behar ditu, EGFari Tratatuaren 146. artikuluan ematen zaion zereginaren testuinguruan eta egitura funtsei Tratatuaren 159. artikuluan emandako zereginaren testuinguruan enplegu-aukerak hobetuz, 1083/2006 (EE) Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

(4) Horrek gero eta garrantzi handiagoa du, Batasunaren zabalkundetik eta ekonomiaren globalizazioaren fenomenotik datozen erronken aurrean. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da Europako gizarte-ereduaren eta bere modernizazioaren garrantzia aitortzea.

(5) Tratatuaren 99. eta 128. artikuluekin bat, eta hazkundeari eta enpleguari buruzko Lisboako estrategia kokatzeko, ekonomia-politiken orientazio orokorrak eta enpleguaren arloko helburu eta lehentasunak ezartzen dituen enplegurako arauak barne hartzen dituen araudi bateratua eman du Kontseiluak. Horri dagokionez, Bruselako Kontseilu Europarrak, 2005eko martxoaren 22an eta 23an, estatuetako eta Europar Batasuneko baliabide egoki guztiak erabiltzeko deia egin zuen, kohesio-politika barne.

(6) Europar Batasunaren EQUAL ekimenetik irakaspen berriak atera dira, tokiko, eskualdeko, nazioko eta europar-mailako ekintzen konbinazioari dagokienez, batik bat. Irakaspen horiek EGFak emandako laguntza integratu behar dira. Honakoei arreta berezia eskaini behar zaie: parte hartuko duten taldeei, etorkinen integrazioari –baita asiloa eskatzen dutenei ere–, politika-kontuen definizioari eta horien integrazioari, berrikuntza- eta esperimentazio-teknikei, nazioz gaindiko lankidetzara bideratutako metodologiei, talde baztertuak lan-munduan sartzeari, gizarte-gaiek barne-merkatuan dituzten eraginei eta gobernuz kanpoko erakundeak proiektuetan eta horien kudeaketan sartzeari.

(7) EGFak Enplegurako Europako Estrategiaren testuinguruan hartutako orientazio eta gomendioei eta Europar Batasuneko helburuei –gizarteratzeari, ez baztertzeari, berdintasuna sustatzeari, hezkuntzari eta prestakuntzari dagokienez– zorrozkiki lotzen zaizkion estatu kideen politikak babestu behar ditu. Eta hori guztia, 2000ko martxoaren 23an eta 24an Lisboan eta 2001eko ekainaren 15ean eta 16an Gotemburgen izan ziren Europako Kontseiluetan adostutako helburuak eta xedeak lortzeko.

(8) EGFak Europar Batasuneko populazio aktiboaren bilakaera demografikoarekin zerikusia duten dimentsio eta ondorioei ere arreta egin behar die, bizitza aktibo guztian prestakuntza profesionala eskainiz, batik bat.

(9) Aldaketari aurrea hartzeko eta kudeatzeko eta ekonomiaren hazkundera, emakumeen eta gizonen enplegu-aukerak eta lanaren kalitatea eta

¹ EO C 234, 2005.9.22koa, 27. or.

² EO C 164, 2005.7.5ekoa, 48. or.

³ Europako Parlamentuaren 2005eko uztailaren 6ko Irizpena (oraindik ere Egunkari Ofizialean argitaratu gabea), Kontseiluaren 2006ko ekainaren 12ko Jarrera Bateratua (oraindik ere Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Europako Parlamentuko 2006ko uztailaren 4ko Jarrera (oraindik ere Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

⁴ Ikusi egunkari ofizial honetako 25. orria.

- ekoizpena handitzeko asmoarekin, «eskualdeko lehiakortasuna eta enplegua» helburuaren eta «konbergentzia» helburuaren testuinguruan, EGFaren kontura emandako laguntzak, batez ere, honakootara bideratu beharko dira: langileen eta enpresen egokitzeko gaitasuna hobetzera; giza kapitala, enplegurako sarrera eta lan-munduan dagoen parte-hartzea handitzera; baliabide gutxiko pertsonen gizarteratzea sustatzera; baztertzearen kontra borrokatzea; ekonomiari dagokionez ez-aktiboak diren pertsonen laneratzea sustatzera eta aldaketaren aldeko elkarteak sustatzera.
- (10) Aipatu lehentasunez gain, «konbergentzia» helburuarekin bat eta ekonomiaren hazkundera, emakumeen eta gizonen laneratzeak aukerak eta lanaren kalitatea eta ekoizpena gutxien garaturik dauden eskualde eta estatu kideetan handitzeko, nahitaezkoa da giza kapitalean egiten den inbertsioa handitu eta hobetzea eta gaitasun instituzionala, administraziokoa eta judiziala garatzea, aldaketak prestatu eta aplikatzeko eta guztia betetzen dela kontrolatzeko, batik bat.
- (11) Lehentasun multzo horretan, EGFaren esku-hartzeen hautespena malgua izan behar da estatu kide bakoitzaren erronka zehatzei heldu ahal izateko, eta EGFak finantzatutako lehentasunezko neurri-motek malgutasun-marjina utzi beharko dute erronka horiek erantzuteko.
- (12) Nazioz gaindiko eta eskualdeen arteko ekintza berritzaileak sustatzea EGFan sartzea komeni den dimentsio garrantzitsua da. Estatu kideek, lankidetzak sustatzeko, ekintza horiek programatu behar dituzte ikuspegi horizontala erabiliz edo lehentasunezko ardatz zehatz baten bidez.
- (13) Beharrezkoa da EGFaren esku-hartzeek Enplegurako Europako Estrategian aurreikusten diren politikekin duten koherentzia bermatzea eta EGFaren konturako laguntzak irizpen eta gomendioen aplikazioan oinarritzea, Estrategia berari jarraiki.
- (14) EGFak babesten dituen esku-hartzeak modu eraginkor eta eragingarrian egiteko, gobernantza ona eta lurraldeko eta gizarte- eta ekonomia-arloko eragile egokien arteko lankidetzak behar dira, gizarte-solaskideen eta nazio-, eskualde- eta toki-mailako gainontzeko interesdunen artekoa, bereziki. Gizarte-solaskideek zeregin garrantzitsua dute aldaketaren aldeko elkarte zabalaren barnean eta, ekonomia- eta gizarte-kohesioarekin duten konpromisoa, enplegu- eta lan-aukerak hobetzen dituen, funtsezkoa da. Testuinguru horretan, zeinetan langileek eta nagusiek laguntza ematen baitute EGFaren ekintzak finantzarioki babesteko, finantza-laguntza hori, nahiz eta sektore pribatuaren gastua izan, EGFaren lagundutako finantzatzea kalkulatzeko aintzat hartu behar da.
- (15) EGFak Enplegurako Europako Estrategiaren testuinguruan egoki diren orientazio eta gomendioei lotzen zaizkien ekintzak babestu behar ditu. Hala ere, orientazio eta gomendioak aldatzeko, kasu hauetan baino ez da beharko programa eragile bat berrikustea: estatu kide batek edo Batzordeak, estatu kide batekin ados, programa eragileak gizarte- eta ekonomia-arloko aldaketa esanguratsuak aintzat hartu behar dituela uste duenean edota Europar Batasuneko, nazioko edo eskualdeko lehenetsuetan, ebaluazioen ondorioz edota egiteko zailtasunen ondorioz izandako aldaketa garrantzitsuak maila handiagoan edo beste modu batean aintzat hartu behar dituela uste duenean.
- (16) Estatu kideek eta Batzordeak honakoa egiaztatu beharko dute: EGFak finantzatutako lehentasunak gauzatzeak, «konbergentzia» helburuen eta «eskualdeko lehiakortasuna eta enplegua» helburuen testuinguruan, berdintasuna sustatzen eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak deuseztatzen laguntzen duela. Genero-ikuspegia barne hartuko duen estrategia bat hartzea parte-hartze iraunkorra handitzeko eta enpleguan emakumeen aurrerapena sustatzeko neurri zehatzekin nahastu behar da.
- (17) EGFak, era berean, laguntza teknikoak babestu behar du, bere esku-hartzea honakootan oinarrituz, batez ere: elkarren arteko ikaskuntzak sustatzean –esperientzien elkartrukearen eta jardunbide egokien zabalkundearen eta transferentziaren bidez, batik bat– eta enpleguari eta gizarteratzeari dagokionez Europar Batasuneko helburu eta lehentasun estrategikoak betetzeko eman den laguntza nabarmentzean.
- (18) 1083/2006 (EE) Erregelamenduan xedatutakoari jarraiki, gastua diruz laguntzeko modukoa den nazio-mailan zehaztu behar da, salbuespen batzuekin, zeinei buruz xedapen zehatzak ezarri beharko baitira. Beraz, egokia da EGFari dagozkion salbuespenak berariazko xedapenen bitartez ezartzea.
- (19) Argitasunaren mesedetan, beraz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1784/1999 (EE) Erregelamendua, 1999ko uztailaren 12koa, Europako Gizarte-Funtsaren gainekoa⁽¹⁾, indargabetu egin behar da.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Helburua

1. Erregelamendu honek Europako Gizarte Funtsaren (aurrerantzean EGFa) funtzioak, bere esku-hartze eremua, eta diru-laguntza jaso dezaketen gastuen kategoriak finkatzen ditu.

¹ EO L 213, 1999.8.13koa, 5. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. EGFa 1083/2006 (EE) zuzentarauak eta erregelamendu honek arautuko dute.

2. artikulua

Funtzioa

1. EGFak Europar Batasuneko lehentasunak gauzatzeko lagunduko du ekonomia- eta gizarte-kohesioari dagokionez, enplegua eta lan-aukerak hobetuz, enplegu-maila handia sustatuz eta lanpostu gehiago eta hobeak sortzea sustatuz. Horretarako, estatu kideek enplegu bete eta lanaren kalitatea eta produktibitatea lortzeko ezarritako politikak babestuko ditu, eta baita gizarteratzeko –baliabide gutxiko pertsonen enplegurako sarbidea lortzeko, bereziki– eta nazio-, eskualde- eta toki-mailako ezberdintasunak murrizteko ezarritakoak ere.

Bereziki, Enplegurako Europako Estrategiaren testuinguruan hartutako irizpenetan oinarrituta estatu kideek hartutako neurriek egokitzen zaizkien ekintzak babestuko ditu EGFak, hazkunderako eta enplegurako artezpide integratuetan eta horiek atxikitako gomendioetan jasotako moduan.

2. Lehenengo paragrafoan azaltzen diren funtzioak betetzean, EGFak gizarte-kohesioa sendotzeko, ekoizpena eta lehiakortasuna handitzeko, eta ekonomiaren hazkundera eta garapen iraunkorra sustatzeko beharretik etorritako Europar Batasuneko lehentasunak babestuko ditu. Horretarako, EGFak Europar Batasunaren lehentasun eta helburuei jarriko die arreta: hezkuntza eta prestakuntzari, lan munduan ekonomiari dagokionez ez-aktiboak diren pertsonen partaidetzaren hazkunderari eta gizarte-baztertzearen kontrako borrokari –talde ahulenei bereziki, hala nola: urritasunak dituztenei–, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenari eta ez-baztertzeari.

3. artikulua

Esku-hartze eremua

1. «Konbergentzia» eta «eskualdeko lehiakortasuna eta enplegua» helburuen testuinguruan, EGFak estatu kideen honako lehentasunak gauzatzeko ekintzak babestuko ditu:

- a) langileen, enpresen eta enpresaburuen egokitzeko gaitasuna hobetzea, horrela ekonomia-aldaketaren aurreikuspena eta kudeaketa positiboak handitzeko, batez ere, honakoak sustatuz:
 - i) etengabeko prestakuntza eta enpresek – ETEek eta langileek, batik bat– giza baliabideetan egindako inbertsioen hazkundera (sistemak eta estrategiak garatuz eta aplikatuz, prestakuntzarako sarbidea errazten duten lanbide ikaskuntzako sistemak barne, kualifikazio txikiko edo adin handiko langileentzat bereziki), kualifikazio eta lehiakortasunen garapena, informazioaren eta komunikazioaren teknologien zabalkundera, bide elektronikoen bidezko ikaskuntza,

ingurumena errespetatzen duten teknologiak eta kudeaketa-trebetasunak, enpresa- eta berrikuntza-espirtuaren sustapena eta enpresak sortzea,

- ii) lanaren antolamendu mota berritzaileak eta emankorrak sortzea eta zabaltzea –lanean osasuna eta segurtasuna hobetzea barne–; enpleguari eta lanbide gaitasunei dagokienez egongo diren etorkizuneko beharrak zehaztea, eta langileentzako enplegu, prestakuntza eta laguntza zerbitzu zehatzak garatzea (birkokatzea barne), enpresa eta sektoreen berregituratzeen testuinguruan;
- b) Ez-aktiboak eta lan bila ari diren enplegurako sarbidea eta laneratze iraunkorra erraztea; langabezia saihestea, iraupen luzeak eta gazteena batik bat; zahartze aktiboa eta lan-bizitzaren luzapena babestea, eta lan munduan parte-hartzea handitzea, bereziki honakoak faboratuz:
 - i) lan-merkatuko erakundeen modernizazioa eta sendotzea, enplegu zerbitzuak eta beste ekimen garrantzitsu batzuk, bereziki, enplegu bete lortzeko Europar Batasuneko eta estatu kideen estrategien testuinguruan,
 - ii) alde aurretik beharizanak zehaztea ahalbidetuko duten neurri aktiboak eta aurrea hartzeko aplikazioak –barne hartzen ditu ekintza-plan partikularrak eta laguntza pertsonalizatua, hala nola: prestakuntza egokitua, enplegua bilatzea, birkokatzea eta mugikortasuna, norberaren konturako lana eta enpresak sortzea, kooperatibak barne–, lan-merkatuan parte-hartzea adoretzeko neurri sustatzaileak, malgutasun-neurriak adin gehien duten langileak luzeagoz aktibo egon daitezen, eta lana eta bizitza pribatua bateragarri bihurtzeko neurriak, haurtzaindegi zerbitzuarentako eta pertsona menpekoen sarbidea erraztuz,
 - iii) integrazioa eta enplegurako sarbidea errazteko, parte-hartze iraunkorra handitzeko eta enpleguan emakumeen garapena sustatzeko neurri zehatzak, eta baita lan-merkatuko sexuaren arabeko banaketa txikitzeak ere, soldaten artean ezberdintasunak egotearen sakoneko kausa zuzenei zein zeharkakoei helduz,
 - iv) enpleguan langile etorkinen parte-hartzea handitzera –horrela beren gizarteratzea sendotuz– eta langileen geografia-mugikortasuna erraztera eta mugaz gaindiko lan-merkatuak integratzera bideratutako neurri zehatzak, baita orientazioaren, hizkuntza-prestakuntzaren eta hartutako lehiakortasun eta gaitasunen balioztatzearen bidez ere;
- c) baliabide gutxiko pertsonen gizarteratzea sustatzea, laneratze iraunkorra izan dezaten eta

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- lan-merkatuko bazterkeria mota guztien kontra egiteko, bereziki honakoak sustatuz:
- i) egoera ahuletan dauden pertsonak —adibidez, gizarte-bazterkeria jasan dutenak, ikasketak behar baino lehen uzten dituzten gazteak, gutxiengoak, urritasunen bat duten pertsonak— eta pertsona menpekoak zaintzen dituztenak lan-merkatuan sartzeko edo lanera itzultzeko ibilbideak, enplegua erraztuko duten neurrien bidez, besteak beste gizarte-ekonomiaren eremuan, lanbide hezkuntza eta heziketarako sarbidearen eta ekintza osagarrien eremuan, eta baita enplegu-aukerak handitzen laguntzeko Europar Batasunaren zerbitzu egokien eremuan ere,
 - ii) lantokian aniztasuna onartzea eta bazterkeriaren aurka borrokatzea lan-merkaturako sarbidean eta lan-merkatuan aurrera egiteko orduan; baita sentsibilizazio-kanpainen bidez eta tokiko erakunde eta enpresak inplikaturik eta tokiko enplegu-ekimenak sustatuz ere;
- d) giza kapitala sendotu, bereiziki honakoak sustatuz:
- i) hezkuntza- eta prestakuntza-sistemetan aldaketak egin eta sartzea, enplegarritasuna handitzeko, hasierako eta lanbide hezkuntza eta prestakuntza lan-merkatuaren beharretara hobeto egokitzeko eta, irakasleen ezagutzak etengabe eguneratuz, berrikuntza ekartzeko eta ezagutzan oinarritutako ekonomia izateko,
 - ii) sareko jarduerak goi-mailako ikastetxeen, teknologia- eta ikerketa-zentroen eta enpresen artean;
- e) elkarrekin, itunak eta ekimenak sustatu, interesdunen —hala nola gizarte-solaskideak eta nazioz gairik, nazio, eskualdeko eta tokiko gobernuz kanpoko erakundeak— sareak sortuz, enpleguaren eta laneratzearen arloei dagozkien aldaketen alde lan egiteko.
2. «Konbergentzia» helburuaren testuinguruan, EGFak estatu kideetan honako lehentasunak gauzatzeko egindako ekintzak babestuko ditu:
- a) giza kapitalean egiten den inbertsioa handitu eta hobetzea, bereziki honakoak sustatuz:
 - i) Hezkuntza- eta prestakuntza-sistemetan aldaketak sartzea, ezagutzan eta etengabeko hezkuntzan oinarritutako gizarte baten beharrei erantzuteko gaitasuna gairik, bereziki,
 - ii) etengabeko hezkuntzan eta prestakuntzan gehiago parte hartzea —baita eskola-uzteak eta sexuaren arabera arlo batera edo bestera orientatzeko joera murriztera bideratutako neurrien bidez ere— eta hezkuntzarako sarbidea areagotzea eta horren kalitatea eta
- hasierako, lanbideko, eta goi-mailako prestakuntzarena handitzea,
- iii) ikerketa eta berrikuntzaren eremuan, giza potentzialaren garatzea, unibertsitatea amaitu osteko ikasketen bidez eta ikertzaileak prestatuz, batez ere;
- b) erakundeen gaitasuna finkatu eta nazio-, eskualde-, eta toki-mailako administrazio publikoen eta zerbitzu publikoen eraginkortasuna handitu eta, hala badagokio, baita gizarte-solaskideena eta gobernuz kanpoko erakundeena ere, aldaketak sartzeko ekonomiaren, enpleguaren, hezkuntzaren, gizartearen eta ingurumenaren eremuetan eta arlo judizialean, batik bat, honakoak sustatuz:
- i) politika eta programen formulazio, jarraipen eta ebaluazio egokiak hobetzeko mekanismoak —besteak beste: ikerketak eta estatistikak eginez eta adituen aholkularitzaren bitartez— eta administrazio-instantzien arteko koordinazioa eta erakunde publiko eta pribatu egokien arteko eztabaida babestekoak,
 - ii) eremu egokietan neurriak eta programak aplikatzeko gaitasunak garatzea, legezko xedapenen aplikazioari dagokionez, batez ere, zuzendaritza-koordenatzaile eta gainontzeko langileen etengabeko prestakuntzaren bidez eta laguntza zehatza eskainiz zerbitzuei, ikuskapen-organoei eta funtsezko gizarte- eta ekonomia-arloko eragilei, gizarte-solaskideei eta ingurumen-arloko, gobernuz kanpoko erakunde egokiei eta lanbide-erakunde esanguratsuei.
3. 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako lehentasunen artean, beren erronka zehatzei gehien lotzen zaizkienetan jarriko dute arreta estatu kideek.
4. EGFak erregelamendu honen 3. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako ekintzak babestu ditzake, Kohesio-Funtsaren laguntza edo behin-behineko laguntza eskura dezakeen estatu kideetako lurralde osoan; laguntza horiek, 1083/2006 (EE) Erregelamenduko 5. artikuluko 2. paragrafoarekin eta 8.eko 3. paragrafoarekin bat etorriko dira, hurrenez hurren.
5. 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako helburu eta lehentasunak gauzatzeko, EGFak jardura berritzaileen sustapena eta integrazioa babestuko ditu.
6. EGFak nazioz gairik eta eskualdeen arteko ekintzak ere babestuko ditu, informazioa, esperientziak, emaitzak eta jardunbide egokiak elkartrukaturik eta planteamendu osagarrien eta jarduketara koordinatu edo bateratuen bidez, bereziki.
7. Hala ere, 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 34. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat, 1. paragrafoko c) idatz-zatian, i) tartekian adierazten den eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren

1080/2006 (EE) Erregelamenduaren –2006ko uztailaren 5koa, Garapen-Funtsari dagokiona¹– aplikazio-eremuak barne hartzen duen gizarteratzearen lehentasunarekin bat, neurrien finantziarioa dagokion lehentasun-ardatzaren % 15a arte handitu ahal izango da.

4. artikulua

Laguntzaren koherentzia eta kontzentrazioa

1. Estatu kideek EGFak lagundutako ekintzak Enplegurako Europako Estrategiarekin koherenteak direla eta hori betez abiarazitako ekintzei laguntzen dietela egiaztatuko dute. Batik bat, erreferentziazko nazioko estrategiaren testuinguruan aurreikusitako estrategia eta programa eragileetan aurreikusitako ekintzek, estatu kide bakoitzean, aipatu strategiaren helburu eta lehentasunak lortzen lagun dezaten zainduko dute, nazioko aldaketa programen eta gizarteratzearen aldeko ekintza-planen testuinguruan.

Estatu kideek, gainera, laguntza kontzentratutako dute, EGFak politikari lagun badieziaieke, batez ere Tratatuaren 128. artikuluan 4. paragrafoarekin bat etorritik enpleguari buruz formulatutako gomendioak betetzen eta gizarteratze, hezkuntza eta prestakuntzaren esparruan enpleguarekin lotutako Europar Batasuneko helburuak betetzen. Estatu kideek horretan jardungo dute programazio-inguru egonkorrean.

2. Programa eragileen testuinguruan, baliabideak behar premiazkoenak betetzera bideratuko dira eta EGFaren laguntzek programaren helburuak lortzeko laguntza handia eman dezaketean eremuetan jarriko dute arreta. EGFaren laguntzen eraginkortasun handiena lortzeko, programa eragileek arreta berezia eskainiko diete, hala badagokie, arazo larrienak dituzten eskualde eta herrialdeei, hala nola baliabide gutxiko hiriko eremuei eta ultraperiferiako eskualdeei, gero eta okerrago dauden landa-eremuko zonei eta arrantzaren mende bizi diren zonei, eta baita enpresen birkokatzeak bereziki eragin dien zonei ere.

3. Hala badagokio, estatu kideek atal labur bat sartuko dute beren txosten nazionalan Europako Gizarte Funtsak gizarteratzearekin zerikusia duten lan-merkatuko alderdi egokien sustapenean nola lagundu duen esanez. Gizarte-babes eta gizarteratze-erloko koordinazio metodo irekiari jarraiki egingo dira txosten nazional horiek.

4. EGFarekin batera finantzatutako programa eragileek izaera estrategikoa eta kopuru mugatua izango dute eta Enpleguaren Europako Estrategia betearazteko erabilitako adierazleak islatuko dituzte, gizarteratze-, hezkuntza- eta prestakuntza-erloko Europar Batasuneko helburuen testuinguruan.

5. EGFaren esku-hartzei buruzko ebaluazioetan, EGFak babestutako neurriek zenbateraino lagundu duten aztertuko da, hala Enpleguaren Europako Estrategiaren aplikazioan, nola Europar Batasuneko

helburuak lortzeari begira kasuan kasuko estatu kideko gizarteratzearen, ez-baztertzearen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan.

5. artikulua

Gobernantza ona eta lankidetzatza

1. EGFak gobernantza ona eta lankidetzatza sustatuko ditu. Funtsaren laguntza lurralde-maila egokian proiektatu eta aplikatuko da, nazio-, eskualde- eta toki-maila aintzat hartuz, estatu kide bakoitzeko berezko mekanismo instituzionalen arabera.

2. Estatu kideek gizarte-solaskideen parte-hartzea bermatuko dute eta baita beste interesdun batzuen kontsulta eta parte-hartzea ere, lurralde-maila egokian, EGFaren laguntzen prestakuntzari, aplikazioari eta jarraipenari dagokionez.

3. Programa eragile bakoitzeko kudeaketa-agintaritzak gizarte-solaskideen parte-hartzea sustatuko du 3. artikuluanekin bat finantzatutako ekintzetan.

«Konbergentzia» helburuarekin bat, EGFaren baliabide-kopuru egokia gaitasuna garatzeko neurrietara bideratuko da, zeinak barne hartuko baititu prestakuntza, sare-konexioa, gizarte-elkarrikeraren sendotzea eta gizarte-solaskideek batera abiarazitako ekintzak; 3. artikuluko 1. paragrafoa a) idatz-zatiak azaltzen duen langileen eta enpresen egokitzeko gaitasuna garatzeko bereziki.

4. Programa eragile bakoitzaren kudeaketa-agintaritzak erraztasunak emango ditu gobernuz kanpoko erakundeak diruz lagundutako ekintzetan sartzeko eta horietan modu egokian parte hartzeko, bereziki gizarteratzearekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin eta aukera-berdintasunarekin zerikusia dutenetan.

6. artikulua

Genero-berdintasuna eta aukera-berdintasuna

Estatu kideek honakoa zainduko dute: programa eragileek genero-berdintasun eta aukera-berdintasuna zein modutan laguntzen den azaltzen duen deskribapena egin dezaten, programa eragileen prestakuntzari, aplikazioari, jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez. Estatu kideek, dagokien moduan, emakume eta gizonen parte-hartze orekatua bultzatuko dute programa eragileak kudeatu eta egitean, toki-, eskualde- eta nazio-mailan.

7. artikulua

Ekintza berritzaileak

Programa eragile bakoitzaren testuinguruan, estatu kideek arreta berezia eskainiko diote ekintza berritzaileak sustatu eta orokortzeari. Kudeaketa-agintariek ekintza berritzaileen finantzaketaren helburu izango dien gaiak hautatuko dituzte elkar

¹ Ikusi egunkari ofizial honetako 1. orria

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

baten testuinguruan eta aplikatzekoak diren xedapen egokiak definituko dituzte. Hautatutako gaien berri emango diote 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 63. artikuluan aipatzen den Jarraipen Komiteari.

8. artikulua

Nazioz gaindiko eta eskualdeen arteko ekintzak

1. Estatu kideek nazioz gaindiko eta/edo eskualdeen arteko ekintzen aldeko ekintzak –3. artikuluko 6. paragrafoan aztertzen dira– programa eragile baten lehentasunezko ardatz zehatz gisa babesten dituztenean, lehentasunezko ardatzari dagokion EGFaren ekarpena % 10ean igo daiteke. Ekarpeneren handitze hori ez da aintzat hartuko 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 53. artikuluan ezarritako gehieneko mailak kalkulatzeko.

2. Estatu kideek, Batzordearen laguntzarekin, hala badagokio, EGFak ez duela aldi berean Europar Batasuneko nazioz gaindiko beste programa batzuen laguntza jasotzen duen eragiketarik finantzatzen egiaztatuko dute, hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuetan, batez ere.

9. artikulua

Laguntza teknikoa

Batzordeak, funtsean, honakoak sustatuko ditu: esperientzien elkartrukea, sentsibilizatzeko ekintzak, mintegiak antolatzea, sare-konexioa eta *inter pares* ebaluazioak –jardunbide egokiak definitzeko eta zabaltzeko eta elkarren arteko ikaskuntza sustatzeko programen eragina bultzatzeko lankidetzeta eta EGFak enpleguarekin eta gizarteratzearekin zerikusia duten Europar Batasuneko helburuak lortzeko eman duen laguntza.

10. artikulua

Txostenak

Urteko txostenek eta 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 67. artikulua aipatzen duen betearazpenaren azken txostenak, hala badagokio, honako hauek jasoko dituzte labur:

- genero-ikuspegia eta genero-berdintasuna sustatzera bideratutako neurri oro ere;
- langile etorkinen parte-hartzea handitzera bideratutako ekintza zehatzak, horien gizarteratzea sendotzen dutenak;
- gutxiengoan laneratzea kontsolidatzera bideratutako ekintzak, horien gizarteratzea hobetzeko;
- baliabide gutxiko beste talde batzuen laneratzea eta gizarteratzea sendotzera bideratutako ekintzak, urritasunen bat duten pertsonena barne;

- ekintza berritzaileak, gaien eta beren emaitzen azalpena eta zabalkundea eta orokortzea barne;
- nazioz gaindiko eta/edo eskualdeen arteko ekintzak.

11. artikulua

Gastuak diruz laguntzeko aukera

1. EGFak diru-laguntza jaso dezakeen gastua ordaintzeko ekarpena egingo du; gastuak, 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren 53. artikulua 1. paragrafoko b) idatz-zatian xedatzen dena gorabehera, enpresaburuek eta langileek batera emandako edozein motatako finantza-baliabidea hartu ahal izango du barne. Laguntza hainbat eratakia izan daiteke: itzuli ezin daitezkeen laguntza indibidual edo globalak, itzul daitezkeen laguntzak, interesen hobariak, mikroredituak, berme-funtsak eta ondasun eta zerbitzuen erosketak kontratu publikoen gaineko araudia betez.

2. Honako gastuok ezin izango dute EGFaren diru-laguntzarik jaso:

- berreskuratu daitezkeen balio erantsiaren gaineko zergek;
- interes zordunek;
- altzarien, ekipamenduen, ibilgailuen, azpiegituren, ondasun higiezin eta lurren erosketak.

3. Honakoak EGFaren diru-laguntza jaso ahal izango duten gastuak dira, 1. paragrafoarekin bat, betiere nazio-mailako arauak (baita kontabilitatekoak ere) errespetatuz eta jarraian azaltzen diren baldintza zehatzak betez egiten badira, :

- hirugarren pertsonen eragiketa baten partaideen alde ordaindutako ordainsariak eta osagarriak, eta onuradunari egindako ziurtapenak;
- laguntzen kasuan, modu globalean aitortutako eragiketa baten zeharkako gastuak, gastu zuzenen % 20 bitarte, gehienez ere;
- amortizatu daitezkeen ondasunen amortizazio-gastuak, zeinak 2. paragrafoaren c) idatz-zatian zerrendatzen baitira, eragiketa egitean esleitutakoak soilik, betiere, laguntza publikoek ez badute aipatu ondasunak erosten lagundu.

4. 1080/2006 (EE) Erregelamenduaren 7. artikulua aplikazio-eremuan sartzen diren EGFarekin batera finantzatutako ekintzak Erregelamendu horren 3. artikuluan ezarritako diru-laguntza jasotzeko arauari loturik egongo dira.

12. artikulua

Xedapen iragankorrak

1081/2006 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 210/12 2006/07/31koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Erregelamendu honek ez du inolako eraginik izango Batzordeak 1784/1999 (EE) Erregelamenduan edo 2006ko abenduaren 31n aplikagarri zen beste edozein legeriatan oinarrituta emandako laguntzak aldatzeko edo bere horretan jarraitzeko orduan, ezta dena delako laguntza hein batean edo guztiz kentzeko orduan ere, izan ere, legeria hori ixten diren arte aplikatuko baitzaie laguntza edo proiektu horiei.

2. 1784/1999 (EE) Erregelamenduaren babesean aurkeztutako eskariek baliozkoak izaten jarraituko dute.

13. artikulua

Indargabetzea

1. Erregelamendu honen 12. artikuluan ezartzen denari kalterik egin gabe, 1784/1999 (EE) Erregelamendua indargabetzen da 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2. Erregelamendu indargabetuari egindako erreferentziak erregelamendu honi egiten zaizkiola ulertuko da.

14. artikulua

Berrikuspen-klausula

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak erregelamendu hau berrikusiko dute 2013ko abenduaren 31n beranduenera ere, Tratatuaren 148. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat.

15. artikulua

Indarrean jartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Erregelamendu hau derrigorrezkoa izango da bere elementu guztietan eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean.

Estrasburgon eginga, 2006ko uztailaren 5ean.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean
Presidentea
P.LEHTOMÄKI